

# BANDOA

## ANDRA MARI ETA SANTA EUFEMIA JAIAK

### • **SASTAR BATZE ZERBITZUA**

Irailaren 7tik 16ra: Eguerdiko 14:00etatik aurrera izango da.  
Irailaren 9an: **EZ DA EGONGO SASTAR BATZE ZERBITZURIK.**  
Irailaren 17tik aurrera: Urtean zehar bezala: Zapatuetan: 14:00etatik aurrera  
Beste egun guztietan: 19:00etatik aurrera

### • **TRAFIKOA**

- Jaietan **kotxerik ez erabiltea eskatzen deusuegu**, eta jai gunean oinezkoei lehentasuna emotea.
- **Bermibus** zerbitzua irailaren 7, 12, 13, 14, 15 eta 17an egongo da.
- **Bizkaibus** zerbitzuko geralekua, irailaren 5etik 20ra, Santamañe kalera aldatuko da Gernikatik doan autobusentzako, eta Zubiaur tar Kepa kalera, Azokaren parean, Mungiatik Bilbora eta Bakiora doazen autobusentzat.
- **Taxi** zerbitzuaren geralekua, irailaren 5etik 20ra, Kasinoaren ondoan egongo da, bere aurreko lekuan.
- **Artzako kaia jai-gunea** izango danez, Artzako biribilgunetik (Kasinoaren ondoan) Lamerara eta portura joateko **sarrerea zarratu egingo da irailaren 1etik 20ra.**
- **Zama-lanak** egiteko ordutegia 08:00etatik 12:00etara izango da. 12:00etan Lamera-portuzarra gune guztia hutsik egon beharko da, eta ezin izango da kotxerik atara handik, ezta gune horreetan aparkatuta euki.

### • **TALKO HAUTSAK**

- **Talko hautsak** botatea **galazota dago**, besteak beste, osasun arriskua sortzen dabelako birikietan arnastean, eta laban egiten danez, hainbat herritar jausi egiten diralako.

### • **SU ARTIFIZIALAK**

Irailaren 8an eta 16an, su artifizialak egongo dira. Auzokideei ondorengo segurtasun neurriak betetea eskatzen jake:

- Balkoietako leiho eta ate guztiak zarratu eta pertsianak bajatuta eukitea.
- Kamaretako argizuloak ondo zarratuta dagozala konprobatzea.
- Ezin izango da balkoi eta terrazetara urten ikuskizuna amaitu arte.
- Teilatu edo terrazaren batera fuetarik jausi ezker, eta suak hartzen badau edo suak hartzeko arriskurik balego, Udaltzaingoari deitu hainbat arinen (tel.:092).
- Sutea sortu barria edo txikia bada, ura erabili (kableak edo tresna elektrikoak hurre egon ezean) edo mantakaz edo toailakaz amataten saiatu.

Bermeon, 2016ko irailaren 1ean  
ALKATEA